



Gure eskola.com

LA SALLE-LEGAZPI
Ikastetxea

2017ko ekaina · 74. alea


Euskadi
2 0 0 6

Loiolako Iñigoren kalea, 7 · 20700 ZUMARRAGA Gipuzkoa · Telf. 943 72 15 14 · Fax 943 72 56 73
www.lasallezumarraga.eus · aldizkaria@lasallezumarraga.eus



**La Salle Legazpi,
koloretan blai!**

	Editoriala Amaiera eta hasiera	2-3
	La Salle Legazpi Calendar	4-11
	Berriak	12-13
	Elkarrizketa Itziar Muniozguren	14-17
	Gure txokoa Amalio jauna	18-19
	Erreportaia Hezkuntza programak	20-33
	Irakasleen txokoa	34-37
	Ikasleen txokoa	38-45
	Gurasoen Txokoa	46-49
	Ikastetxea lehen eta orain	50-51
	Zorionak	52-59
	UGLE	60-61
	Kontraazala	62

 La Salle Legazpi
 @LaSalleLegazpi
 LaSalle Legazpi Zumarraga-Urretxu

Amaiera eta hasiera

Aitor Macho

Ez dago hasierarik gabeko amaierarik. Hain bananduta dauden bi une horiek, istorio osoa tartean dagoelarik, beti edukitzen dute pentsatzen dugun baino lotura handiagoa. Askotan, hasieran era batera hasi zena, beste norabide bat hartzen duela ematen du eta, amaieran, zeharo ikuspegi desberdina hartu du; istorioan zehar parte hartzen hasi diren osagai berriek aldatu eta ezabatu egin dute hasieran hartu zuen itxura hura. Baina ez da horrela, hasierak beti dauka amaierarekin erlazioa, prozesuan orientazioa aldatzen joan ahal arren.

Mitch Albomek, bere 2003. urteko *"Zeruan topatuko dituzun bost pertsonak"* eleberrian, amaieraren gaia planteatzen du, existentziaren amaiera, ordea, baina bertan azaltzen diren ideiak erabili ditzakegu gure bizitzetan egon daitezkeen hain kategoriko edo erabakior ez diren beste amaiera batzuetan. Gure bizitzako joan-etorrietan, geu gara protagonista, geuk hartzen ditugu erabakiak, baina egia da ere gu ez garela geure bizitzako eragile bakarrak.

Albomek bere istorioan bere bizitza osoan atrakzio parke batean lan egin duen adineko gizon maitagarri baten kasua helarazten digu, Eddieren kasua, alegia. Eddie hiltzen da errusiar mendiko bagoi batek harrapatuta, harrapatzera doan neskato bat salbatzean. Bat batean, bere burua zeruan ikusten du eta, bertan, bere bizitzan eragin handiena, batzuk oso zuzena, besteek ez hain zuzena eta bera konturatu gabe, izan duten bost pertsonekin egiten du topo. Eta, hortik aurrera, idazleak aprobetxatu egiten du gure existentziaren garapenean garrantzi handia daukaten bi kontu aletzeko: nola dago lotuta gure bizitza ezagutzen ez dugun pertsonen bizitzarekin? Nolako eragina daukate gure erabakiek beste pertsonen bizitzan? Horrek lagundu diezaguke gure bizitzaren misterioa pixka bat gehiago ezagutzen. Eta eleberrian, bizitzan bezala, azkeneko erantzunaren zain gauden bitartean, mila espekulazio joaten dira azaltzen.

Gure bizitzako amaiera "txiki" horietako bat gertu dugu: ikasturtea berehala bukatzen zaigu. Eta hausnarketari tartetxo bat uzten badiogu, honelakoak gertatu direla baieztatuko dugu, ziur: ilusio handiarekin ikasturtea hasi zutenek, eta ilusio hori mantendu dutenek, ahalegin bihurtuta, zailtasun eta une gogorrek egon arren, ondo egindako lanaren satisfazioa daukate; animo handirik gabe hasi zutenek, baina bidelagun motibagarriak izan dituztenek, jarrera aldatzearen erabakiaren poza experimentatzen dute; eta, aldiz, motibaziorik gabe hasi eta hori aldatzeko osagarririk topatu (edo ikusi nahi) ez dutenek, hasierako sentsazio berbera izango dute amaieran, sakonagoa oraindik, agian. Hausnarketa horretan, gehiegi sakondu ez arren, bide horretan garrantzitsu izan diren pertsonak errekonozituko ditugu eta, pixka bat sakonduz gero, beste batzuk gehiago deskubrituko ditugu. Itzalean egon dira, baina hortxe egon dira. Eta, gai izango al gara gure ibilbideak zein pertsonengan izan duen eragina identifikatzeko?

Horiek guztiak, ez al digu ondo erakusten amaiera hasierarekin ondo lotuta dagoela? Egindako hausnarketa jakin behar dugu, bada, ondo aprobetxatzen, Jainkoari esker, gure bizitzak jarraitu egiten duelako eta amaiera izango duten beste hasiera batzuk ailegatuko zaizkigulako. Gure esku dago zer jarrerarekin heldu. Izan ere, Albomek berak horixe adierazi zuen aipatu dugun eleberriaren aurkezpenean egin zioten elkarrizketaren galdera baten erantzunean: *"arraroa iruditu daiteke istorio bat amaieratik hasiera hasten, baina bukaera guztiak hasierak ere badira, gertatzen dena da bere momentuan ez garela konturatzen"*.





20 Nahiz eta beste HH eta LHko etapekin alderatuta denbora gutxiago eskaini, Bigarren Hezkuntzako ikasleek bere trebetasuna erakutsi zuten Kemonak (DBH1-2) eta Kontzientzia Ekologikoa (DBH 3-4) izeneko ITB proiektuak lantzen.

17 DBH4 eta Dibertsifikazio Kurrikularreko 4. mailako ikasleek Andoaingo La Salle ikastetxea bisitatu zuten. Bertan, behin Bigarren Hezkuntzako ikasketak amaitu dituztela, hurrengo ikasturterako eskuragarri izango duten ikasketa eskeintzari buruzko informazioa jaso zuten.



6 Haur Hezkuntzako ikasleak gogo handiz aritu ziren 10 egunetan zehar Ikaskuntzarako Testuinguru Berrian (ITB) oinarritutako proiektua lantzen.



22 Udaberria hasi berria zela aitzaki, HEko ikasleek plastikozko botilak berrerabiliz sortutako lorontzi batzuetan hainbat hazi eta landare landatu zituzten. Ondoren, lorontzi horiek paperezko loreekin apaindu zituzten. Naturari eta ekologiari keinu polita egin zioten, dudarik gabe.



25 Eskolako gaztetxoak primerako sukaldariak direla erakutsi zuten Izartxo aisialdi taldeak antolatutako sukaldaritza lehiaketan. Izan ere, epaileek lan handia izan zuten gure chef gazteen sorkuntza-lanak dastatzen eta epaitzen.



29 2 urteko haurrek primeran pasa zuten garraiobideei buruz ikasten. Batetik, irteera txiki bat egin zuten trenak pasatzen ikusteko.; bestetik, gelan hainbat ekintza egiten gozatu zuten.



20 Lehen Hezkuntzako ikasleak ere ITBk sustatuko proiektuetan lanean aritu ziren bi astetan zehar. Gure ikasleek egindako lana desberdina izan zen etaparen arabera: LH 1. eta 2. mailako ikasleak zuhaitzak eta landaredia aztertzen aritu ziren; LH 3. eta 4. mailakoek artelanak sortu eta Emozioen Museoa izeneko erakusketa antolatu zuten; LH 5. eta 6. mailakoak, berriz, arte eszenikoetan trebatu ziren antzezlan bat sortuz eta antzeztuz.



27 Azkenean iritsi zen DBH4 eta Dibertsifikazio Kurrikularreko 4. mailako ikasleek urte osoan zehar prestatzen ibili ziren momentua: ikasbidaia. Bizipen, emozio eta esperientziez betetako 6 egun ahaztezin igaro zituzten Andorra eta Bartzelona aldean.



4 Ilargi okindegira bisita egin ondoren, horra LH 2.mailako ikasleak beraiek egindako ogiarekin!



37 Frantsesa ikasten ari diren DBH3ko ikasleak Baigorri izan ziren La Salle Legazpik kudeatzen duen elkartruke programaren eskutik. Elkartruke programaren helburua bikoitza da. Alde batetik, gure ikasleak frantses kulturaren eta hizkuntzan murgiltzen dira Baigorriko hainbat ikasle eta familiekin egun batzuk igaroz. Bestetik, behin Zumarraga eta Urretxura bueltatuta, elkartrukea egin duten frantses ikasleei gure kultura, hizkuntza eta familia bizitza erakusten dizkiete. Baigorri, Bidarrain eta Kanbo ezagutu zituzten eta Getaria, Donostia eta Mirandaolan izan ziren elkartrukeko frantses ikasleekin.




6 HHko ikasleek Korrika Txikian parte hartu zuten peto eta guzti.



7 La Salle Legazpik euskararekiko daukan konpromezua agerian utzi zuen 20. Korrikan parte hartuz. Nahiz eta aurtengo Korrika Zumarragatik goizeko ordu biak aldera pasatu, lagun ugari gerturatu zen euskal hizkuntza eta kultura aldarrikatzeko asmoz. Hala ere, La Salle Legazpiren presentzia bikoitza izan zen: Zumarragan apirilaren 8an parte hartzeaz gain apirilaren 3an Baigorri elkartrukean zeuden ikasleek ere parte hartu baitzuten.



25 DBH4. mailako eta Dibertsifikazio Kurrikularreko 4. mailako ikasleek UGLE bisitatu zuten.



27 Zelai Arizti aretoan La Salle Legazpiko ikasleen proiektuak eta eskulanak egon ziren ikusgai. Kontzientzia ekologikoa eta artea izan ziren, teknologiarekin eta sorkuntza modu berriekin bateratuta, erakusketak islatu zituen gaiak. Proiektu bakoitza ikerketa, diseinua, exekuzioa eta promozioa barneratzen dituen lan prozesu sakon baten emaitza da Ikaskuntzarako Testuinguru Berriaren barnean. Izan ere, erakusketa material eta lanen uztartze koloretsu eta ikusgarri batean bilakatu zen. Proiektuekin batera txikienek egindako eskulanak ere ikusgai egon ziren Zelai Arizti aretoan.



27 Pasa den apirilaren 28an LHko 3.eta 4. mailako ikasleak Zegamako Anduetza Parketxean izan ziren. Han Interpretazio Zentroan dagoen Xilotekako egur bildumak hautatuz, egur ezberdinen ezaugarriak aztertuz zituzten (usaina, pisua, ukimena) eta hauen arabera gaur egun eta antzina egur hauek zuten hainbat erabilera. Jarduera honetaz gain, Murgizelaiko ibilbidea egin zuten bioaniztasuna aztertuz. Oria ertzeko basoan zehar ibili ziren enborren atalak ezagutzen, eraztunak kontatzen, zuhaitzaren hazkundera aztertzen, etab, garai batean hain garrantzitsua izan zen lehengaia ezagutzen. Azkenik, Zegama herriak eskaintzen duen paisaian murgilduta, Aizkorriko mendizerraren inguratuta, parkean jolasten oso gustura igaro zuten irteeraren eguna.



29 Oraingo honetan Izartxo aisialdi taldearen helburua jolas tradizional ospetsuenetako baten berrikusketa egitea izan zen. Hona hemen emaitza: ikasleek arratsalde bikaina pasatu zuten oka-gynkana jokoan jolasean atsedetik hartu gabe.



8 Gure LH6. mailako ikasleek Arotz Enean egun ahaztezin batzuk igaro zituzten. Esperientzia hau naturarekin harremanetan jartzeko eta beraien arteko harremanetan sakontzeko aukera ezin hobe izan zen.



9 HH 5 urteko umeak Donostiako Magisteritza Fakultatean izan ziren. Bertan hainbat proiektutan parte hartzeko aukera izan zuten eta fakultateko ikasleei laguntza aparta eskaini zieten. Amaitzeko parke batean etengabeko jolasean aritu ziren.



10 Jakingo al genuke nola jokatu larrialdi egoera batean? Gai izango al ginateke lehen sorospenak era seguru eta egokian ematen? Informazio hori DBH3ko ikasleek Lehen Sorospenei buruzko ikastaroan jaso zuten. Bertan, atal teorikoaz gain, ikasitakoa praktikan jartzeko aukera izan zuten.




mineral eta fosilen
Urrelur museo



11 LH2. mailako ikasleak Urrelur Museoan izan ziren. Bertan mineral eta fosilei buruz asko ikasi zuten jaso zituztenen azalpenen bitartez eta museoari bisitaldia eginez. Bestalde, hainbat mineral ukitzeko aukera izan zuten. Hau izan zen ziurren bisitaldiko zatirik dibertigarriena!



13 DBH2ko ikasleak diren Nekane Ibarzabal eta Unai Fragua Donostian izan ziren Euskadiko XV. Olinpiada Matematikoan. La Salle Legazpiko ordezkari gisa aritu ziren eskolako beste ikasleak hainbat erronka matematikotan garaitu ondoren. Zorionak egindako lan bikainagatik!



19 La Salle Astearen barnean DBH1 eta 4ko ikasleek antzerki emanaldi ezin hobe eskaini zuten Zelai Arizti Aretoan. Aurten Whoopi Goldberg aktorearen Sister Act filmaren egokitzapen musikala antzeztu dute. Tradizioari jarraiki, sarreren salmentarekin lorturiko dirua PROYDE-PROEGA GKEari laguntzeko erabili zuten. Izan ere, ekintza honekin gure ikasleek La Sallerentzat hain garrantzitsuak diren baloreak praktikan jarri zituzten: bizikidetzatza, errespetua eta solidaritatea.



20 Izartxo aisialdi taldeak mendi irteera bat antolatzen zuen maiatzeko ekintza bezala. Mendi zaletasuna sustatzeko primerako ekintza.



25 Primerako eguraldia lagun, HH3 eta 4 urtekoak Larraitzen izan ziren egun pasa. Korrika egin, jolastu, eguzkia hartu, dantzatu, abestu, ... Ekintza pila bat egin zuten naturaz gozatu bitartean.



30 Aurten ere La Salle Legazpik Agenda 21 programak antolatzen duen Udal Foroan parte hartu zuen. Ikasturte honetan klima aldaketari buruz lanean aritu ondoren, gure eko-ordezkariek udal gobernuari ingurugiro arazo honi aurre egiteko hartu daitezkeen neurri eta konpromezu batzuk proposatu zituzten. Izan ere, aurkeztutako neurri eta konpromezu zerrenda La Salle Legazpiko ikasle guztiek Agenda 21 taldeari pasatutako proposamenak dira. Eko-ordezkariek fin aritu ziren La Salle Legazpiren izenean. Milesker zuen lanagatik!



15 La Salle Legazpiko ikasleek antzerkia, disko-festa, jolas didaktikoak, dantza, tailerrak, **19** museora bisita eta mendi-irteerez betetako aste batez gozatu zuten aisia eta baloreak uztartzen dituen egitarau bat tarteko zituen Kultura Astea ospatu baitzuten.

Txikienek ezohiko gonbidatuak izan zituzten, Ekain Magoa edo DJ Tirapu, besteak beste. Tirapuk “#andonikmugitzennau” festa eraman zuen eskolara. Halaber, Txotxongilo Taldeak “Erreka Mari” aurkeztu zuen.

LHko ikasleak Urrelur Museora joan ziren bisitan eta eskulan eta makillaje tailerra ere egin zituzten, besteak beste. Egun handia asteazkena izan zen LHkoentzat. Sanferminetako txupinazoarekin bat hasi zen entzierroa eta ikasleak zezenengandik ez ezik, buruhandiengandik ere ihesi ibili ziren. Goiza jolas eta tailerretan eman zuten bazkal ordua iritsi arte, non ikasle eta irakasleek elkarrekin egin zuten bazkaria. Mahaia eta dantza-tokia partekatu zituzten Tirapuren konpainian eta amaieran txokolatada izan zuten.



DBHko ikasleentzat ere proposamenak ugariak izan ziren, hala nola, mendi irteera, zumba, jolasak, etab. Ostiralean, gynkana eta sukaldaritza saioa eduki zituzten, non risotto goxo bat eta brotxeta ekologikoak prestatu zituzten. Asteari amaiera



futbolean eman zioten, guraso eta irakasleen eta ikasleen eta irakasleen arteko futbol partiduekin, Zelai Arizti aretoan Sister Act antzerki emanaldia eskaini aurretik.

San Asensio eta Beizamako udaleku, ingeleseko kanpamendu, musika udaleku eta tailer teknologikoek osatzen dute udako oporretako eskaintza

Aisia eta ikaskuntza uztartzea. Helburu horrekin osatu du La Salle Legazpi udako oporretako udaleku eskaintza beste erakunde batzuekin elkarlanean. San Asensio eta Beizamako udaleku, ingeleseko kanpamendu, musika udaleku eta dronen eta 3D inpresioaren inguruko tailer teknologikoek osatzen dute eskaintza. Proposamen ludiko-hezigarriak ikasleen garapen kognitibo eta soziala garatzera bideratuak.

La Salle Legazpi udalekuak San Asensio udalekuak (Errioxa)

5. eta 6. mailako ikasleek parte hartuko dute (70 ikasle joango dira) ekainaren 22tik 28ra bitartean. Begiraleak eskolako irakasleak izango dira eta sektoreko anaien etxean biziko dira egun hauetan. Bertan elkarbizitza, aisia, jolasak, konpartitzea, enpatia, adiskidetasuna, partaidetza sustatuko dira, ingurune naturalaz gozatuz. Era berean, bertan bizi diren anaiekin beraien esperientzia partekatuko dute, non euskararen erabilera %100 izango den.

Beizama udalekuak

LH 4. mailako ikasleek parte hartuko dute, 30 ikasle hain zuzen, uztailaren 6tik 11ra bitartean. Begiraleak eskolako irakasleak izango dira. Bertan, elkarbizitza, jolasak, ardurak, autonomia, errespetua, adiskidetasuna, partaidetza, ...sustatuko dira naturan murgilduz. Bestalde, auzo euskaldun bateko baserri batera goazenez, baserri mundua, euskal ohiturak... landuko ditugu eta bertakoekin elkarbizitza euskalduna izango da.



kanpamenduetan parte hartzeko beste herri batera edo hiriburura joan beharrik gabe. Egitarauaren baitan daude jarduerak, jolas tematikoak, kirolak eta eskulanak ingelesez, asteroko irteerarekin batera.

Musika udalekuak: Do Re Ni


Do Re Ni proiektua eskolaz kanpoko jarduerak gisa aurtengo ikasturtean ezarri da La Salle Legazpin. Ekimenari jarraipena emanez, 3 eta 12 urte bitarteko neska-mutilek aukera izango dute musika udalekuetan parte hartzeko. Arte eszenikoak, kirola, musika eta euskara lantzen dira, proiektuaren lau ardatzak, hain zuzen.

Tailer teknologikoak: dronak eta 3D inpresioa

Teknologia zaletuentzat La Salle Legazpi eta Doplayk dronen eta 3D inpresioaren inguruko tailerrak antolatu dituzte. 7 eta 16 urte bitartekoei zuzenduak dira. Partaideek drona diseinatu, inprimatu, muntatu, gidatu eta azkenean, etxera eramango dute.

Ingeleseko kanpamenduak ikastetxean bertan Lacunzaren eskutik

Lacunza hizkuntza akademiarekin elkarlanean, 6 eta 12 urte bitarteko neska-mutilek aukera izango dute eskolan bertan ingeleseko



La Salle Legazpi material didaktiko propioaren eta testu liburuak kentzearen aldeko apustua egingo du

Hezkuntzaren eraldaketa ez da kapritxoa, beharrezkoa baizik. La Salle Legazpi ezinbestekoa ikusten du apustu hau egitea bizi garen mundu digitalaren aurrean. Ezagutza orain sarean dago eta sarean mugitzen irakatsi behar zaie ikasleei, ezagutzak integratuz eta jasotako ideiak eta kontzeptuak lotuz. Hori dela eta, La Salle Legazpi etorkizuna material didaktiko propioen digitalizazioan dagoela sinesten du. Digitalizazioa ez da paperetik formatu digitalera pasatzea. Izan ere, gaur egun oinarritzakoak diren konpetentzietan gure ikasleak trebatzea du helburu: ikasten ikastea, pentsatzen ikastea, ekintzaileak izaten ikastea, hausnartzen ikastea, pentsamendu kritikoa erabiltzen ikastea. Horretarako, La Salle Legazpi apustu bikoitza egin du. Batetik, testu liburuak progresiboki kentzen joatea erabaki du eta bestetik, bere ahaleginak material didaktiko propioa lantzerantz bideratuko ditu. Horretan lagunduko dute ikasle eta irakasleek eta nola ez, La Salle sare osoak.

Sakon hausnartutako eta egiaztatutako neurria da eta pixkanaka egingo da aldaketaren ezarpena. 2017-18 ikasturtean LHko 3 eta 4 mailako ikasleak izango dira lehenak Chromebook bat erabiltzen, hau da, ordenagailu eramangarri txiki bat. Gaztelaniako ikasgaiak erabiliko dute eta datozen urteetan ikasgaiak gehitzen joango dira. 2010-21 ikasturtean testu libururik ez da izango Gaztelania, Matematika, Gizarte, Euskara, Ingelesa, Natur Zientziak eta Erlijioa ikasgaietan. Gainera, ikasle bakoitzak (LH3tik DBH4ra) posta elektronikoko kontu bat izango du lanak entregatzeko, irakasleekin harremanetan jartzeko edo dokumentuak sarean gordetzeko erabiliko dutena, besteak beste. Honela, La Salle Legazpi XXI. mendeko irakaskuntzak eta ikaskuntzak eskatzen dituzten berrikuntza eta aldaketetara moldatzen da, gure ikasle eta familiei merezi duten kalitatezko zerbitzua emateko asmoz.

Arlep barrutiko estatistikak



Itziar Muniozguren

“Pertsona baten heziketa maila zenbat eta hobeia izan, orduan eta handiagoa izango da eraldatzeko izango duen ahalmena”

Martxoan zehar La Salle Legazpik Ikaskuntzarako Testuinguru Berriaren esparruan sortutako proiektuak martxan jarri zituen. Bilboko Barrutiko La Salle eskoletako proiektuaren delegatu eta animatzaile den Itziar Muniozgurenekin honi buruz hitz egin dugu.



Nola definituko zenuke Ikaskuntzarako Testuinguru Berria?

Irakaskuntzan berrikuntzak aplikatzeko sortu zen erakunde bat gara. La Salleko San Juan Bautistak pedagogia goitik behera aldatu zuten berrikuntzak sartu zituen Frantzian. Berak hasitako eraldaketarik garrantzitsuena irakaskuntza elkarte batek dinamizatzen duen proiektu bat bezala ulertzea izan zen. Salletar eskolak berritzen dihardu ordutik.

Errealitatea behatzea, ulertzea eta ahalik eta egoera onenean erantzunak ematea gure kode genetikoaren eta gure nortasunaren zati dira. Gutako askok eskola maitasunez gogoratzen dugu eta momentu bereziak, pasadizo barregarriak, pertsonak partekatzen ditugu. Gure eskolaz hitz egiten badugu ikasgaiez harantzago dagoena deskribatzen dugu. Giroa, klima, bizipenak eta testuingurua deskribatzen ditugu.

Hainbat hamarkadatan kurrikulum askok eskolak umeei, gazteei eta nerabeei eskaintzen zizkien aspektuen zati bat bakarrik aintzatesten zuten. Kurrikulum ezkutu bat zegoen, pertsonaren garapenean ezinbestekoa zena, hezitzaile bakoitzaren sentiberatasunaren, Berebiziko Izaeraren, nortasunaren, eskola erakundearen eskuetan zegoena. La Salleren nortasunaz, baloreetaz, bizitzaren zentzuaz, benetan garrantzitsuak

diren alderdiei buruz hitz egiten duen kurrikulum ezkutu hori landu dugu betidanik. Eta kalitatezko eskaintza aberats batekin osatzen joan gara. Ikaskuntzarako Testuinguru Berrian hori guztia txertatu dadila eskatzen dugu ikaskuntza garrantzitsuago egiten duelako, hunkitzen gaituena gudan grabatuta geratzen delako eta garenaren zati bat izatera pasatzen delako.

Proiektuetan oinarritako ikaskuntza ez da berria, ezta? La Salleko metodologiak zer gehitzen du?

POI (Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza) ez da berria, ezta guk asmatutako proiektu bat ere. Sortzailea izatea ez da asmatzailea izatea, nahiz eta guk bietatik zerbait eduki. POIn gure eskolan sustatu nahi dugun Ikaskuntzarako Testuinguru Berrian ikasleengan gure gazteei eskaini nahi dizkiegun konpetentziak garatzen dituen metodologia berri bat aurkitu dugu. La Salle Programek proposatzen dituzten berrikuntzak POIn uztartzen ditugu, hala nola Ulises Programa, Optimis Programa, SORMEN Programa, IRATI Programa, Irakurketa Eraginkorra Programa, IDEALA, SEIN Programa, HARA Programa, Elkarlaneko Ikaskuntza, ... Amaigabeko zerrenda da. Aberastasun handia ematen duten osagaiak dira, POI salletar eskoletan balio handiko elementu bilakatzen duena.

Zergatik XXI. mendeko hezkuntza eraldatzeko behar hori?

Galdera zoragarria da, galdera hori egiten duenak kezka adierazten duelako da. Errealitatea behatzen badugu eta erantzunak ematen badituzu, zure proposamena beti

aldakorra, berritzailea, aktiboa izan behar da. Bizi dugun errealitatea ez da estatikoa eta munduarekin eta beste izakiekin adeitsuagoa den gizateria eraikitzen konprometituak diren pertsonen beharra dagoela adierazten digu. Gure ikasleei beraien hazkuntzan lagundu nahi diegu, beraiek ikasi dezaten bidezkoak ez diren egoerak eraldatzen eta bidezkoagoa eta baketsuagoa den mundu baten alde lan egiteko gai izan daitezen. Gure gizartean lekua galtzen ari diren baloreak gogoz lantzen ditugu; hala nola, ardura, irmotasuna, esfortzua, prest egotea, anaitasuna, konpromisoa, zerbitzua, bokazioa, fedea. Pertsona baten heziketa maila zenbat eta hobea izan, errealitatea interpretatzeko, gehiago jakiteko gogoia edukitzeko eta erantzuteko gai izan, orduan eta handiagoa izango da eraldatzeko izango duen ahalmena.

Testuinguru berri honetan zein da irakasleari dagokion eginkizuna?

Salletar eskoletan betidanik proposatu duguna: bitartekari bat da, ikasleak eduki behar duen testuingurua eta baldintzak diseinatu behar dituen pertsona ikasleak giro horretan bere guria garatzeko gai izan daitezen.



Eta gurasoena?

Ikaskuntzarako Testuinguru Berri honetan gurasoek parte hartzeko abagune ezin hobea daukate. Gurekin bere jakintza, gaitasunak eta dohainak partekatzen dituzte, ikasleek ikasi dutena nola komunikatzen eta konpartitzen dutenaren lekuko dira, ekintza eta momentu ugaritan parte hartzen dute. Familiar garrantzitsua da adi egotea, eskolan gertatzen diren gauzei arreta jartzea, galderak egitea jakintza zabaltzeko, ikaskuntza eduki jakin batzuk bereganatzeaz harantzago doan prozesu bat dela azpimarratzea, balioetan heziz ikasitako guztia besteen zerbitzura jarri ahal izateko ... Ezinbestekoa da familiak ikaskuntza elkarte den eskola honetan bere lekua eduki dezan, eta beraien seme-alaben lehenbiziko hezitzaile bezala jokatzeko.

La Salle Legazpin proiektu pilotu batzuk garatu dira maila guztietan. Zein da hurrengo urratsa?

Etengabeko berrikuntza prozesu batean bizi gara. 2015-2016 ikasturtean 7 salletar hezitzaile urte osoan zehar Ikaskuntzarako Testuinguru Berria diseinatzen aritu ziren. Zirriborro bakoitza beste talde batzuekin komunean jarri zen proiektua hobetzeko, xehetasunak azpimarratzeko, ... 2016ko ekaina, uztaila eta abuztuan Bilbo Barrutiko La Salleko 15 eskoletako hezitzaileei aurkeztu genien proiektua eta horri buruz lanean aritu ginen. 2016/2017 ikasturte honetan formazio

berezia jaso duten 38 pertsonen osatzen dituzten 11 lan talde sortu dira eta Ikaskuntzarako Testuinguru Berriko 11 esperientzia landu dituzte. Eskola bakoitzak dagozkion esperientziak landu ditu bere errealitate eta ikasleen arabera egokitzeke. Ondoren, Bilbo Barrutiko 15 La Salle eskoletan martxan jarri ziren otsaila eta apirila bitartean, etapa eta ziklo guztietan. Ikasle eta irakasle guztiek ikaskuntzarako testuinguru berri honetan lan egitea nolakoa izan daitekeen probatu dute. Esperientzia pilotu hauek ez dira eredu bat, esperientzia bat baizik, garapenerako modu bat, oraingo honetan arlo ezberdinak uztartzen dituen baina beste diseinu mota batzuk eduki ditzakeen proiektu bat. Proiektuak landu ondoren eskola bakoitzak zikloka edo etapaka balorazio bat egin du eta hezitzaile bakoitzak banakako balorazioa egiteko aukera izan du galdetegi baten bitartez. 450 erantzun inguru jaso ditugu. Lortutako emaitzak aztertu ondoren esperientzia honek balorazio oso positiboa jaso duela esan dezakegu. Datorren ikasturtean ildo beretik doan proposamen bat daukagu: hezitzaileei formazioa eskaintzen jarraituko dugu, hauek esperientziak diseinatzen jarraitu dezaten, ondoren geletan lantzeko. Era berean ARLEP Barrutian (Espainia eta Portugaleko La Salle sarea) sortuko den taldearekin koordinazio lanetan jarraituko dugu, testuinguru berri hau Barrutiko 100 eskoletan berdin aplikatu dadin.


Amalio jauna

Anai Mikel Arbizu

Donostia. Alde zaharra. Bretxako antzinako arrandegiaren aurrean, Euskal Herria kalea. Atzealdean, Pasealeku Berriaren olatu-horma, Urumearen ibai-ahoa ondoan. Urgull azpian, bere tontorrean estatua. Zurriolako zubitik Salamanca Pasealekua aurreratzen da, etxeak eusten dituen gerriko bat bezala: tamarindo zaharrez eta egurrezko eserlekuez espaloia apaintzen da. Ibiltariak Kursaal eta Ulia mendia kontenplatzen dituzte. Agertoki ezin hobea gure protagonistarentzat. Urteko urtaroa? Zer inporta! Adina? Nik, umetxo bat, oso zahar ikusten nuen. Itxura apala, urrats lasaia, artilezko jaka, prakak erdi jausita, zapatiletan... etxeko ataritik kaleko eserlekurako ibilbideak ez zuen besterik behar; txikia zen gure gizona, potxoloa, ezpainetan zigarroa, aro biribilezko betaurrekoak, betiko txapelarekin. Oraindik gizon hura ikusten ari naiz.

Auzoan ospetsua. Pare bat etxekoandrekin gurutzatzen bazen, berriketan, "Sukaldean zerbait erretzen ari da" esaten zuen. Zer moduz, Amalio jauna? "Ondo. Beste hilabete bat gehiago (zerura begiratzuz) eskatu diot". Dagoeneko hil egingo zara? "Ez; bi edo hiru aste barru, beste luzapen bat eman diezadala eskatuko diot". Handia zen Amalio. Ikuskari aparta. Aste Nagusiko antzerki onena, berarekin konparatuz, txiki gelditzen zen. Eserleku hark eguneroko emanaldiko sarrera berezia erresebatzen zuen. Umore, sinpatia; besterik gabe, bere presentzia funtsezkoa zen. Bazkarietan bezala: "ukiturik" onena laguntasun egokia da. Publiko bermatua. Propagandarik gabe. Bere orduan: arratsaldeko seietan, gutxi gora-behera, itsasoko haizetxoarekin. Betiko auzokoak. Inor ez zen falta. Bera etorri baino lehen, han geunden denak. Bere hitz egiteko eta bizitzeko moduak arazo guztiak izutzen zituen. Nola izan zitekeen zoriontsu hain gutxirekin? Zenbat aberatsek horregatik ordainduko luketen!

Doitasunez, alai eta pakean egotearen artea. Zer esango zukeen gaurko modetaz? Ia-ia hilero aldatu behar duen gertakari hain bitxiak. Gizon hark erdia edo gutxiago daukanaren jakinduria irakasten zuen, baina bikoitz gozatuz. Gertaera bakoitzetik txiste bat ateratzen zuen. Ez ziren garai errazak: guda bat bukatu berria baina bere presentzia soilik opari bat zen, udako freskagarria. Samurtasuna, pakea, lasaitasuna kutsatzen zuen. Irribarre egiten ikustean, pasadizoak entzutean beste pertsona ezberdinak sentitzen ginen: osasuntsuagoak, alaiagoak ... baita indartsuagoak ere. Eskerrik asko, Amalio jauna: denentzat etengabeko jaia izan zinen. Urte asko, asko pasa dira. Itsasoak, tamarindoak... eta zure eserlekuak hor dihardute oraindik. Orain egongo zaren tokian ez da alaitasunik faltako. Bizi izan nuen bezala, hala kontatu dut.



Garai berriak bizi ditugu eta ikaskuntza garai berri hauetara moldatu behar da. La Salle Legazpik etengabeko berrikuntzarekiko duen konpromisoa betetzen jarraitzen du eta Ikaskuntzarako Testuinguru Berria (ITB) lantzen eta sustatzen duten erramintak aplikatzen dihardu. Horren adibide on bat Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza (POI) da.

PROIEKTUETAN OINARRITUTAKO IKASKUNTZA (POI)

Ikaslea, bere ikaste prozesuan protagonista

Azken garaietan irakaskuntzan izandako iraultza esanguratsuenetarikoa irakaslearen eta ikaslearen rolen aldaketa izan da. Ikaslea ez da jada subjektu pasibo bat, orduetan ikasmahaian jarri eta irakasleari jaramon egiten diona ezagupen teorikoak barneratzen dituen bitartean. Ez. Orain, ikaslea bere ikaste prozesuaren protagonista bihurtu da eta irakaslearen lana gidaritza-lana da, ikasleak bere kompetentziak garatu ditzan. Zertara dator aldaketa hau? Besteak beste, irakasleak ezin duelako eta ez duelako Google-ekin lehiatu behar. Gaur egun, informazioa poltsikoetan dago, mugikorretan. Irakaslearen lana Fisika, Kimika, Matematika edota Ingelesa irakasteaz gain ikasleari laguntzean datza, bere kabuz ikas dezan ezagutzen, egiten, izaten eta elkarbizitzen.

Eszenatoki berri honi erantzuten dio La Salle sareko eskolen metodologia, antolakuntza eta arkitektura eraldatzera datorren Irakaskuntzarako Testuinguru Berriak (ITB). Ikasteko modu berri hau ekimena eta autonomia pertsonaren sustapenean oinarritzen da, prozesu kognitiboen suspertzean edota interakzioaren eta sormenaren indartzean.

La Salle Legazpik jada zehaztuta du bere bide-orria. Horregatik, martxoan zehar maila guztietako ikasleak oinarritzko kompetentziak lantzen dituzten Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntzak (POI) jasotzen dituen diziplinarteko proiektuak garatzen aritu ziren Irakaskuntzarako Testuinguru Berriaren erabateko inplementazioaren aurrean gisa. Hona hemen esperientzia bakoitzaren atzean dagoen lanaren adibide batzuk.



Haur hezkuntza

“Zer egin zaborrarekin ez bizitzeko?” Horixe izan zen Haur Hezkuntzako umeei abiapuntu gisa planteatutako arazoa, haritik tiraka soluzio ezberdinak bila zitzaten lan prozesuan zehar. Ikaskuntzarako Testuinguru Berriaren baitan garatutako proiektua izan zen, umeei pentsatzera, esperimendatzera, bilatzera, egitera eta elkarbizitzera bideratua dagoena. Finean, ikasten ikastera.

Edozein arazok lan prozesu bat eskatzen du bera ebazteko. Soluzioa ekimenetik, jakin-minetik, ez



etsitzetik eta lan-taldetik etortzen da, gure ikasleentzat beharrezkoak diren zeharkako kompetentziak guztiak. HHn planteatutako proiektu pilotuan ikasgela zabortege handi bat bihurtu zen. “Efektu kolpe modura, gela hondakinez bete genuen lehenengo. Gero larrialdi sirena bat entzun genuen eta hiru urtekoek paperak eta kartoiak bildu behar izan zituzten, lau urtekoek plastikoak eta ontzi arinak, eta bost urtekoek errefuxa eta organikoa. Eta hori guztia jokoen eta IKTen bidez”, dio Begoña Jauregui irakasleak.

Proiektuaren baitan bideo bat ere egin zuten Zikintxo pertsonaia protagonista hartuta eta ingurumena kaltetzen duten praktika txarrak ere salatu zituzten rap-aren bidez. Lana osatzeko “Amalur” kantua erantzutako koreografia bat eta birziklatutako materialarekin tresnak landu zituzten. “Ikaskuntzarako Testuinguru Berriaren baitan – gaineratu du Jaureguik- umea da ardatza une oro. Hausnartu eta esperimendatu egiten dute eta pil-pilean ikusten genituen. Irakasteko eta ikasteko beste modu bat da”.



Lehen Hezkuntza 1. eta 2. mailak

Ikasleei egindako planteamendua ondorengoa izan zen: "Ez ditugu gure herriko zuhaitzak ezagutzen. Zer egin dezakegu?" Lan prozesuan zehar inguruko parkeak zaintzeak duen garrantziaz jabetu ziren. Halaber, mapa batekin orientatzen ikasi zuten eta baita QRak egiten ere. QR-en proiektua Ikaskuntzarako Testuinguru Berria deritzan metodologiaren baitan landu da. Esperientzia pilotu gisa egindako diziplinarteko proiektu gehienak eskolan bertan geratzen diren arren, QRen lanak kanporatzeko aukera eduki zuten ikasleek. Kalera atera ziren Zelai Arizti parkeko zuhaitzetan kodeak jartzera herritarrek

udalerrian dauden zuhaitz mota ezberdinen inguruko informazioa eta ezaugarriak eskura izan ditzaten. Gauza bera egin zuten udaletxe atzeko sekuoiarekin, "Zumarragako erraldoiarekin". Jada landare erraldoiak QR propioa du. Ikasleek zazpi zuhaitz motari buruzko informazioa bildu zuten eta horretaz gain Wikipediara linkak jarri zituzten jakin-mina asetu nahi duten herritarrentzat. Bestalde, gurasoak gonbidatu zituzten Zelai Arizti parkera euren proiektua aurkezteko eta ingurumenaren aldeko aldarria egiteko "Jo ta ke, ingurumenaren alde" oihukatuz.



Lehen Hezkuntza 3. eta 4. mailak

LH1 eta 2ko ikasleak kalera atera eta zuhaitzetan QR kodeak zintzilikatu zituzten bitartean herritarrek landare motak ezagutu ditzaten, 3. eta 4. mailakoek beste erronka "artistikoago" bati egin behar izan zioten aurre: museo bat sortu. Horretarako lau artista handi aukeratu zituzten: Salvador Dalí, Frida Kahlo, Joan Miró eta Fernando Botero. "Ikasleek haien sormen lanak aztertu zituzten ikuspegi teknikitik, kolore aldetik, etab. Obren bidez mugimendu artistiko ezberdinak bereizten ere ikasi dute, hala nola, inpresionismoa edota surrealismoa. Ingeleseiz ere bideo piloa ikusi zituzten", dio Aintzane Sanz irakasleak.


Proiektuaren diziplinartekotasunak, ordea, gehiago exijitzen du. Artisten biografiak aztertu zituzten eta baita artelaneak deskribapenak landu ere. Amaiera emateko lan prozesuari Emozioen Museoa sortu zuten. "Azken fase honetan elementu geometrikoak landu zituzten, espazioak neurtu eta antolatu, katalogoak eta marketingeko euskarriak garatu...". Izan ere, ezagutza eta konpetentzia guztiak proban jartzen dituzten proiektuak dira, matematiketatik hasi eta ahozko eta idatzizko adierazpena, hizkuntzak eta beste hainbat ikasgai. Museoa eskolako frontoian kokatu zuten eta sarrerak sortu eta saltzeaz ere arduratu ziren aurrez ikasleak. Sarrerekin eskuratutako dirua Proyde-Proega La Salleren gobernuak kanpoko erakundearentzat izan zen.



Lehen Hezkuntza 5. eta 6. mailak

LH 5 eta 6 mailako ikasleek antzezlan bat sortu zuten "To be or not to be. That is the question" proiektuaren baitan. "6. maila bukatu dut" izenburupean, lau bertsio ezberdin landu zituzten, talde bakoitzak bat. Hala ere, obra taularatu bitartean lan asko egin behar izan zuten. Literatur genero gisa aztertu zuten antzerkia, jatorria ikusi, Erdi Aroan eta Errenazimendu garaian bete zuen funtzioari erreparatu, edota egitura, osagaiak, ezaugarriak eta motak ere ezagutu zituzten. Lanak askotarikoak izan ziren. Aktoreen kastinga, gidoiaren idazketa edo pertsonaien

karakterizaziotik hasita eszenografiaren diseinua, publizitatearen kudeaketa edota marketingerako euskarriak, sarrerak, kartelak, etab. landu arte ez zuten arnasik hartu. Ekintzailatza, talde-lana, plangintza eta konpromisoa eskatzen dituen lan prozesua izan zen. Ekimena aurrera eramateko matematika eta kalkuluaren inguruko ezagutzak ez ezik, emozioen kudeaketa, gorputz adierazpena eta komunikazioa ere landu zituzten.



Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 1. eta 2. mailak

Mugikorra, kamara, QR kodeen irakurgailua eta Urretxuko eta Zumarragako mapak. Zertarako horrelako ekipamendua? Gizakemonak harrapatzeko. Ikaskuntzarako Testuinguru Berriaren baitan, DBH1 eta DBH2ko ikasleek landutako proiektua da, partaideei ondorengo erronka luzatuz: 14 Gizakemon harrapatzea bi orduko denboran gehienera jota. Gizakemonak harrapatzea erraza izan zen. Konplexuagoa jolasa bera sortzea. Jolasak behar

bezala funtzionatzeko tutorialak bilatu, ikertu, mapak sortu, QR kodeak egin eta kokatu ... eta beste hainbat lan egin behar izan zituzten. Pokémon GOren sortzaile John Hanken antzera, gogor egin zuten lan eta ilusioz gainera. Nahiz eta itxuran proiektu ludikoa iruditu, helburua elkarlaneko ikaskuntza praktikan jartzea zen, ikasleek etorkizunean beharko dituzten konpetentziak garatzeko. Ekintzailea izaten, erabakiak hartzen, pentsatzen ... ikasi zuten. Finean, zirt edo zart gauzei soluziobideak bilatzen, eta nola ez, helburua betetzen.



Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 3. eta 4. mailak

Zer erabilpen eman diezaiekegu gure ibaiei? Galdera horri erantzun behar izan zioten DBH 3. eta 4. mailako neska-mutilek, Urola ibaiaren inguruko azterketa egin ostean Udalari eskaera formal bat aurkezteko asmoz. Duela ez asko arte, umeak ibaian bainatu egiten ziren, ur errotak ikus zitezkeen ... orain, ordea, irudi horiek ikustea ia ezinezkoa bihurtu da. Ibaiaz lehen egiten zen erabilera eta gaur egungoa ikusten hasi ziren gurasoei eta aitona-amonei galdeketa bat eginez. Ingurumen Sailak

ibai-ekosistemak zabaltzeko abian duen Ibaialde programa hartuta Urola ibaia aztertu zuten. Horretarako, uraren kalitatea zehazteko material ezberdinez osaturiko kitak erabili zituzten, herritarrak ere gauza bera egitera animatuz kitak ibai ertzetan banatu baitzituzten nahi zuen orok erabili zitzan. Proiektua borobiltzeko sentsibilizazio lan bat ere egin zuten irrati kanpaina baten bidez eta antzezlan bat ekoiztuz. Amaitzeko, lortutako ondorio guztiak aldarrikatzeko flashmob bat sortu zuten.

IKASLEEN IRITZIA

Zein da La Salle Legazpiko ikasleek Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntzari buruz daukaten iritzia? Maila bakoitzeko ordezkariak galdera batzuk egin dizkiegu eta hona hemen erantzun dutena:

- 1. Zein da proiektuaren izena?**
- 2. Proiektua non garatu duzue (gelan, eskolako hainbat gunetan, eskolatik kanpo, etxean,...)?**
- 3. Zein ikasgai landu dituzu?**
- 4. Zein tresna erabili dituzu?**
- 5. Bakarka edo taldeka egin duzu lan?**
- 6. Nola sentitu zara?**
- 7. Ikasitakoak praktikotasuna izan al du?**
- 8. Ikasle edo irakasle ez den norbait inplikatu al duzu projektuan?**
- 9. Berrir egingo zenuke?**
- 10. Puntuatu 0tik 10ra.**



HH 3 / 4 / 5 urte



Urko Agirrezabal LH1

- 1.-** Zer egin dezakegu zaborrarekin ez bizitzeko?
- 2.-** Eskola atzean, gelan, patioan eta Zelai Ariztin.
- 3.-** Egunero egiten ditugun gauzak ere egin ditugu egun hauetan.
- 4.-** Kotoia, papera, erroiluak, zapata kaxak, botilak, sokak, jogurt potoak, tapoiak, arrautza ontziak, xaboi poteak, tapak, ...
- 5.-** Banaka, binaka eta taldeka.
- 6.-** Ondo eta pozik.
- 7.-** Bai.
- 8.-** Ama eta aita.
- 9.-** Bai.
- 10.-** 10

- 1.-** Jo ta ke, Naturaren alde.
- 2.-** Gelan eta Zelai Ariztin.
- 3.-** Ingelesa eta Euskara, beste batzuen artean.
- 4.-** Arkatza, ezabagoma, arbela digitala eta liburuak.
- 5.-** Banaka eta taldeka.
- 6.-** Ondo.
- 7.-** Bai.
- 8.-** Ez.
- 9.-** Bai, oso ondo pasatu dudalako.
- 10.-** 9



Ane Rojo
LH2

- 1.- Jo ta ke, Naturaren alde.
- 2.-Gelan eta amaieran Zelai Ariztin.
- 3.- Plastika, Natura, Mate, Euskara.
- 4.- Orriak eta idazteko materiala.
- 5.- Taldeka.
- 6.- Oso ondo.
- 7.- Bai.
- 8.- Ez.
- 9.- Bai, asko gustatu zaidalako egin duguna.
- 10.- 9



Deiane Aguirrebeña
LH3

- 1.- Emozioen Museoa.
- 2.- Gelan eta eskolako frontoian (erakusketa egiteko).
- 3.- Ingelesa, Euskara, Plastika.
- 4.- Pintzelak, margoak, errotulagailuak, tenperak, folioak, ...
- 5.- Taldeka.
- 6.- Ondo.
- 7.- Bai, margotzea asko gustatzen zaidalako.
- 8.- Ez.
- 9.- Bai, proiektua asko gustatu zaidalako eta gauza pila bat ikasi ditudalako.
- 10.- 10



David González
LH4

- 1.- Emozioen Museoa.
- 2.- Gelan eta frontoian.
- 3.- Denetarik (Ingelesa, Euskara, Gaztelania, ...).
- 4.- Margoak, arkatzak, orriak eta arbela digitala..
- 5.- Banaka.
- 6.- Oso ondo.
- 7.- Bai.
- 8.- Ez.
- 9.- Bai, oso esperientzia polita izan delako.
- 10.- 9,5



Iker Álvarez
LH5

- 1.- Antzerkia (To Be or Not to BE).
- 2.- Gelan eta aretoan.
- 3.- Euskara, Mate, Ingelesa eta Plastika.
- 4.- Ordenagailua, papera, dekoratua.
- 5.- Taldean eta banaka.
- 6.- Oso urduri baina gustura.
- 7.- Bai.
- 8.- Ez.
- 9.- Bai, oso dibertigarria izan delako eta entseguak oso barregarriak izan direlako.
- 10.- 9



Asier Agustín
LH6

- 1.- To Be or Not to BE Antzerkia
- 2.- Gelan eta aretoan.
- 3.- Euskara, Mate, Ingelesa eta Plastika.
- 4.- Ordenagailua, papera, dekoratua.
- 5.- Taldean eta banaka.
- 6.- Oso urduri baina gustura.
- 7.- Bai.
- 8.- Ez.
- 9.- Bai, oso dibertigarria izan delako eta entseguak oso barregarriak izan direlako.
- 10.- 9



Unai Urisabel
DBH 1A

- 1.- Ornokemonak.
- 2.- Gelan eta kalean.
- 3.- Gizarte, Natura, Mate, Euskara.
- 4.- Ordenagailuak, idazteko materialak, mugikorrak, QR kodeak.
- 5.- Taldeka.
- 6.- Gustura.
- 7.- Bai, ikasi duguna oso garrantzitsua delako.
- 8.- Ez.
- 9.- Bai; dibertigarri izan da, ondo pasatu dugu, ikasteko beste era bat eskaintzen digu eta herria hobeto ezagutu dugu.
- 10.- 8,5



María López
DBH 1B

- 1.- Ornokemonak
- 2.- Gelan, baina azkenengo egunean herrian zehar ibili ginen sortutako kodeak bilatzen.
- 3.- Ingelesa, Frantsesa, Euskara, Gaztelania, Mate, Gizarte, Bio-Geo.
- 4.- Ordenagailuak nagusiki eta fitxak.
- 5.- Taldeka (lan kooperatiboa).
- 6.-Ondo, taldean aritu .garelako
- 7.- Bai, nahiz eta aurretik ikasitako gauzak landu ditugun.
- 8.- ez.
- 9.- Bai, ikasteko edo aurretik landutako edukiak berrikusteko beste era bat delako.
- 10.- 7,5



Ariane Maestro
DBH 2A

- 1.- Gizakemonak
- 2.- Gelan eta eskola inguruan.
- 3.- Gizarte, Erlijio, Plastika, IKT, Euskara.
- 4.- Ordenagailuak, kartulinak eta idazteko materiala.
- 5.- Taldeka.
- 6.- Gehienetan gustura.
- 7.- bai.
- 8.- ez.
- 9.- Bai: ikasteko beste modu bat da, dibertigarria eta talde lana sortzen du.
- 10.- 8,5



Naiara Prieto
DBH 2B

- 1.- Gizakemonak
- 2.- Gelan eta kalean.
- 3.- Mate, Gaztelania, Ingelesa, Frantsesa, Euskara, IKT, Fisika, Gizarte.
- 4.- Ordenagailuak, kartulinak eta idazteko materiala.
- 5.- Taldeka.
- 6.- Ondo, gustura.
- 7.- bai.
- 8.- ez.
- 9.- Bai. Taldean egoten ikasi dugu eta ikasteko beste modu dibertigarri bat izan da.
- 10.- 8,5



Iker Pombar,
DBH 3A

- 1.- Kontzientzia Ekologikoa.
- 2.- Gelan eta ibaian.
- 3.- Teknologia, Mate, Natura, Euskara.
- 4.- Ordenagailuak, idazteko materiala, IKTak, analisi Kit-a.
- 5.- Taldeka.
- 5.- Gustura.
- 7.-Nolabait, bai.
- 8.- Gurasoak eta aitona-amonak.
- 9.- Gelakide batzuk ezetz erantzun dute gaia eta lan erritmoa eta bolumena direla eta; hala ere, beste gelakide batzuk baietz erantzun dute giroz aldatu dugulako eta ikasteko beste era bat delako.
- 10.- 5



Maialen Delgado
DBH 3B

- 1.- Kontzientzia Ekologikoa.
- 2.- Gelan, etxean (galdeketa bat egiteko), ibaian eta udaletxean.
- 3.- Biologia, Fisika, Gizarte, Teknologia, Euskara.
- 4.- Ordenagailuak, Antzerki Taldearen materiala, ibaiko uraren analisia egiteko Kit-a.
- 5.- Taldeka.
- 6.- Gustura.
- 7.- Bai, batez ere ibaiko uraren analisia egiten ikasitakoa.
- 8.- Gurasoak eta aitona-amonak..
- 9.- Gelakideek orokorrean baietz erantzun dute: taldean lan egin dugu eta lan egiteko beste era ezberdin batean aritu gara. Hala ere, badira ezetz erantzun dutenak gaia eta lan prozesuan rolak zehazteko eduki dituzten zailtasunak direla eta.
- 10.- 6



Ainara Ezeiza eta Nerea Iturbe,
DBH 4A eta 4B

- 1.- Kontzientzia Ekologikoa.
- 2.- Gelan eta eskolatik kanpo (ibaian, ibai inguruan eta herrian).
- 3.- Biologia, Fisika, Gizarte, Teknologia, Euskara.
- 4.- Ordenagailuak, mugikorrak, kamera, analisi kimikorako Kit-a.
- 5.- Taldeka (lan kooperatiboa).
- 6.- Ondo, gustura.
- 7.- Bai, taldean lanean aritu garelako eta ordenagailuak eta teknologia berriein trebetasun gehiago lortu dugulako.
- 8.- Bai, gurasoak eta aitona-amonak informazioa jasotzeko.
- 9.- Bai, taldean gustura gaudelako eta beste modu batean ikasi dugulako.
- 10.- 8,5



Maite Martínez eta Alba Baña,
Dibertsifikazioa 3. eta 4. maila

- 1.- Kontzientzia Ekologikoa (Ibaien ekosistemen aldaketak).
- 2.- Etxean, eskolan eta ibaian.
- 3.- Bio-Geo, Euskara, Gaztelania, Musika eta Teknologia.
- 4.- Ordenagailua, idazteko materiala, grabatzeko tresnak eta mural bat egiteko arropak.
- 5.- Taldeka.
- 6.- Ondo, pozik, baina batzuetan larrituta, proiektuak lan-erritmo konstantea eta dinamikoa eskatzen duelako.
- 7.- Bai, gauza ezberdinak erabiltzen ikasi dugu.
- 8.- Familia eta kaleko jendea.
- 9.- Bai, interesgarria delako eta gure inguru nola dagoen ikasi dugulako.
- 10.- 7,5


Irakasleen txokoa

Hona hemen gure irakasleek gure ikasle eta gurasoei ikasgaiz ikasgai gomendatzen dieten materiala.

Haur Hezkuntza

Hirutxulo telebista programa

Dolua lantzeko ipuina



HIRUTXULO dantza

TIPI-TAPA, KORRIKA! dantza,

ASTONAUTA



Lehen Hezkuntza

NATURA

Materiaren gaia era interaktiboan lantzeko gunea



Izenburuen gainean klikatu edukietara joateko

GET READY TO WIGGLE



MASAJEA Pirritx eta Porrotxekin

AHOA BIZI, BELARRIAK PREST! dantza



ESKUETAN

Izenburuen gainean klikatu edukietara joateko

EUSKARA

Aditz-kasu desberdinak ezagutzeko "txibatoa"



Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

Izenburuen gainean klikatu edukietara joateko


GIZARTE

Google art project

Googlek sortutako app berria arte lanak eta museoak ikusteko

INGELESA

Find any grammar, vocabulary, listening and reading resources you need!



EUSKARA

Goza daiteke gehiago, Karmelo Ayesta



Tribuaren berbak saioan eginiko elkarrietzeta ETB1 Airean

BAT ZUK dokumentala



HEZIKETA FISIKOIA

Eskolako Hezkuntza Fisikoaren garrantzia gizentasunaren arazoaren aurrean

Irakasleen txokoa

GAZTELANIA

Eleanor & Park, Rainbow Rowell



TEKNOLOGIA

Teknologia ikasgaiko arlo guztiak bateratzen dituen webgunea

FRANTSESA

Pratiquez la langue avec ces jeux!



TUTORITZA

Irakaskuntzari buruzko alegoria



Ikasleen Txokoa

Gure ikasleen lana ez da azterketetara eta etxeko lanetara mugatzen. Ekintza pila bat burutzen dute eta oso interesgarriak diren banakako zein taldeko lan nahiz proiektuak egiten dituzte. Hona hemen adibide batzuk: gure ikasleak lanean!





Haur Eskolaz gozaten



HH 2 urte Animalien tailerra



HH 3 urte Esperimentatzen



LH1 Van Gogh-en Tailerra



Sevillarrak:

Graduak dituzue
Zortzi bat inguru
Ta euria metroko
Ehun litro seguru
Hotzez hilko gara gu
Ene ze apuru!
Bi txamarra gainean
Guk jantzi ditugu
Halare katarroa
Harrapatu dugu.

Euskaldunak:

Sevillan ezin haize
Freskorik bilatu
Berrogeita bost gradu
Ezin aguantatu
Izerdiaz maindire
Guztiak pegatu
Nahiz ta jada oporrek
Aspaldi bukatu
Mareoa oraindik
Ez zaigu pasatu.

Sevillarrak:

Zumarragako festetan
Ikuskizun earra
Harri jasotzaileak
Besotan indarra!
Bizkar gainera jaso
Zuen harritzarra
Nire ustetan zego(e)n
Zoratu samarra
Ez dakit nola ez zuen
Puskatu bizkarra

Euskaldunak:

"La Maestranza" joan
Ginen gu propio
Zezenari odola
Lepotik jario
Harek ze(r) sufrimendu
Ta ze(r) martirio
Askoz nahiago nuke(e)n
Esanda serio
Adarra ipurditik
Sartu izan balio.

Sevillarrak

Donostian asetu
Nahiean gorputza
Pintxo bat hartu genun
Ta ardoaz bultza
Erronda hogei euro
Hori bai dirutza
Izututa joan ginen
Denok etxeruntza
Sabela erdi bete
Ta kartera hutsa.

Euskaldunak:

Tabernara joan ginen
Gure lagunekin
Trago bat eskatu ta
Tapa bat berekin
Ordaindu behar ez zenez
Uko egin ezin
Ensaladilla rusa
Mayonesarekin
Ta geroztik gabiltza
Pirrilarekin.

Sevillarrak:

Euskal Herrira hontara
Iritsi ta bela
Hizkuntza arraro bat
Ahoan zutela.
Ezer ulertu ezinik
Tontoak bezela
Jende dena euskeraz
Entzun ta horrela
Uste genun Txinara
Iritsi ginela.

Euskaldunak:

Zuen hizkuntza ere
Normala ote da?
Ezer ulertu ezinik
Genbiltzan gainera.
Zuen "killo" ta "Ocu"
Entzunaz batera
"C" eta "S" esaten
Zeharo antzera...
Aho barrutik ezin
Txiklela atera.

Denek:

Hemen aritu gara
Txantxa eta broma
Iparrekoak hara
Hegokoak hona
Azken aldian hauxe
Da modan dagona.
Nahiz ezberdintasuna
Den oso sakona
Leku guztiek dute
Beren alde ona.

BERTSO JAIALDIA 2017

LARRIALDIAN DAUDENAK	SUHILTZAILEAK
Kaixo suhiltzaileak Etorri lasterka Orain gure etxea Sutan dago eta!	Sofa gainean gaude Benetan gustora Pixa egin gainera Ta itzaliko da!
Nire katu txikiak Izena du Mixi Zuhaitzera igo da Ta ezin da jaitsi	Katuek zazpi bizi Dituzte ta punto Bat galduta ez zaio Ezer gertatuko
Istripu bat izan dut Aldapan behera Eta orain ezin naiz Kotxetik atera	Pereza dugu ta-utzi Pakean mesedez Bentanila jaitsi ta Handik irten zaitez
Lagundu suhiltzaileak Zuhaitza erori da Errepidean dago Ta pasa ezin ba	Horrela zuhaitzetik Gora joan erabat Hurrengorako erosi Todoterreno bat
Mendira joan gara Familiarekin Eta oraindik gaude Galduta gu mendin	Utzi pakean orain Siestan joan gara gu GPSa erosi Eta ezetz galdu!
Gure Pintto erori da Ur putzu batera Eta orain ezin du Zulotik atera.	Hartu gaileta handi bat Eta eman jateko Bitamina asko ditu Salto egiteko.
Urduri gaude eta Lasaitzen nahiko lan Bomba bat baitaukagu La Salle eskolan	Bonbak ematen digu Benetan ikara Gustora joango gara Natazkoa bada.
Holakorik ez dadin Gehiago pasatu Hobe larrialdiak Lasai lasai hartu	

Bertso jaialdia LH5



Zikintxo Games

Zikintxo
Letra-Zopa

Zikintxo
Scratch
and Guess


Zikintxo
Find those

Zikintxo Games LH6.mailako Andoni Salegui eta Eneko Careaga ikasleek diseinatutako "jolas-gunea" da. Aurten, Agenda 21 proiektuan Klima Aldaketaren gaia lantzen ari ginela, hondakinen birziklapenak duen garrantziaz jabetuta, Android sistema-operatiboareztat egokitutako app desberdinez osatutako jolas-gunea diseinatzea erabaki zuten

beraien tarte librean. Momentuz, zirriborro bat besterik ez da, baina nork daki herritarrentzat ezinbesteko erreminta bihurtuko ote den! Klikatu itzazu ikurrak eta izan zaitez lehena 3 jolas hauek probatzen!

LH6 Zikintxo Games

SEIN ikasgairako ezarrita zegoen helburua burutu zen: jolastokian erakusketa bat antolatzea non gure ikasleek osatutako SEIN proiektuak beste mailako ikasleei aurkeztu zizkieten. Metodo ezin hobea denon artean ikasteko.



SEIN erakusketa



SEIN 4 / Beasain

Lucía Albisua, Mirene Garmendia, Lucía Mateos eta Asier Teijeira Beasaineko La Sallen izan ziren beraien SEIN 4 ikasgaiko proiektuaren aurkezpena egiten.



El hombre del piano

Iker Elduayen



Game Over

Danel Miguel



Ekintzailertza DBH4

Maiatzaren erdialdean Ekintzailertza ikasgaia landu duten DBH4ko ikasleek urteko erronkari amaiera eman zioten, hau da, sortutako enpresa – produktuari buruzko erakusketa. DBH3ko ikasleak

proiektuen aurkezpenean izan ziren eta modu honetan hurrengo ikasturtean landu dezaketen ikasgai bati buruzko informazio baliagarria jaso zuten.



Los sueños, sueños son

Nerea Iturbe



Vuelta al pasado

Mirene Garmendia

4º DBH / Ipuinak

Izenburuen gainean klikatu edukietara joateko



Gurasoen Txokoa

Familiak eskola elkartearen beste zati garrantzitsu bat dira. Hona hemen beraiei eskainitako tarteak.

Arco Iris taldeak umorea eta elkartasuna uztartu zituen "Comisaría Especial para las Mujeres" antzezlanarekin

La Salle Legazpi ikastetxeko antzerki taldeak Alberto Miralles autorearen obraren moldaketa maiatzaren 12an estreinatu zuen Zelai Arizti Zinean.

La Salle Legazpiko guraso eta ikasle ohien antzerki taldeak Alberto Mirallesen "Comisaría Especial para las Mujeres" obraren egokitzapen bat taularatu zuen aurten ere, beste behin umorea eta elkartasuna uztartuz. Hitzordua maiatzaren 12an izan zen Zelai Arizti Zinema aretoan. Bi emanaldi eskaini ziren, bata 19:00etan eta bestea 22:00etan.

Arco Iris taldea 2001ean sortu zen eta urtero antzezlan bat ekoizten du helburu solidario batekin. Aurten, lortutako diru-sarreraren zati bat Guatemalara bideratu dute Proyde-Proega gobernuz kanpoko erakundearen bidez. Herrialde hartako nerabeen haurdunaldien prebentziorako proiektua garatzeko erabiliko da laguntza. Halaber, elikagaien bankuari edo



beste zenbait tokitako erakundeei ere iritsiko zaie laguntza.

Taldea oraintxe bertan hamar bat emakumez osatua dago, "senarrak asko laguntzen diguten arren". Gogor aritu ziren entseiatzen "eta ilusioz beteta" publikoaren txaloak bereganatzeko asmoz. Mari Carmen Viedma taldeko koordinatzailea da eta zuzendaritza eta aktore

lanez ere arduratzea tokatu zaio aurten. Bere esanetan, zaila da emakumeek soilik antzeztuko duten obra batekin topo egitea. "Zer egin ohi dugu? Ba bibotea jarri eta txapela jantzi. Baina aurten bi aldaketa egitea erabaki genuen. Batetik, eszenatokia aldatzea. Beti istorioa etxeko egongela batean gertatzen zen eta aurten aldatzea erabaki dugu eta baita soilik emakumeok antzezteko baliagarria izan zitekeen obra bat hautatzea ere. Eta horrela egin dugu".



Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna aldarrikatzen duen komedia antzeztu zuten.

Polizia-etxe berezi bat sortzen da emakumeen arazoak artatzeko "baina ez du funtzionatzen eta egun batean gauzak gertatzen hasten dira".

Arco Iris-eko emakumeak eszenografiak, karakterizazioak, jantziek eta gainerako guztiaz arduratu ziren eta nola ez, obraren egokitzapenaz, gidoia ikasteaz eta beste hainbat gauzez pertsonaiei bizia ematen hasi aurretik. "Urrian hasi ohi gara lanean. Otsailetik aurrera astean bitan elkartzeko gara eta azkenaldian, egunero. Onena da antzerki talde bat osatzeaz gain, lagun talde bat garela".



GURASOEN TXOKOA

La Salle Legazpiko ikasleek eta irakasleek aldizkariaren ale bakoitza sortzeko aktiboki parte hartzen dute eskolan egindako lanaren emaitzak erakutsiz eta ikaskuntza sustatzen duten bestelako tresnak emanez. Hala ere, gure komunitateko euskarri nagusietako bat falta da: familia. Guraso bezala, anima zaitetzeko gure aldizkarian parte hartzera, bai erabilgarriak izan daitezkeen baliabideak proposatuz, bai zuen hausnarketak, inpresioak idatziz. Gurekin harremanetan jarri zaitzekete aldizkaria@lasallezumarraga.eus helbidean. Merezi du.











LA SALLEtik – UGLEErako bidea:

Ondorengo ikasleek LaSallen ikasi eta gero,
Batxilergoa UGLE eskolan ikasten ari dira.
Irakur ezazu beraien esperientzia!!




NEREA ORTEGA

Gizarte Zientziak Batxilergoa
17 urte

Hasiera batean kanpora joatea erabaki nuen. Han nengoela, berehala damutu nintzen, denborarik ez nuelako lehen egiten nituen gauza guztiak egiteko. Nire lagun batzuk, UGLEn oso gustura zeudela esan zidaten eta horrek konbentzitu ninduen eskolaz aldatzeko.

Egia esan, erabaki ona hartu nuela uste dut. Gertutasunak asko laguntzen du nahi dituzun gauzak egiten jarraitzeko, eta gainera, irakasleekin dugun harremana oso ona da, baita ikaskideen artekoa ere. Berriro hautatzeko aukera izango banu, UGLEa etorriko nintzateke dudarik gabe.



ALEXANDER MAESTRE

Batxilergo Teknologikoa
16 urte

Nire arazoa Batxilergo mota aukeratzea zen: argazkilaritzarekin lotura zuen zerbait egitea edo batxilergo teknologikoan matrikulatzea. Behin Batxilergo teknologikoa ikastea erabaki ondoren, hurrengo arazoa non ikastea zen. Nahiz eta beste eskola batzuk bisitatu, UGLEren abantailak argi ikusi nituen, bereziki gertutasuna. Horrez gain, nire anaiak ere UGLEn ikasi zuen eta azkenean, nire ikasketak hemen jarraitzea erabaki nuen.



ANE MERINO

Gizarte Zientziak Batxilergoa
16 urte

Ez zen erabaki erraza izan, zalanza asko sortzen direlako; UGLE aukeratu nuen eta ez naiz damutzen. Oso argi neukan zer ikasi nahi nuen, baina nire ikasketak non burutu behar nituenak kezka sortzen zidan.

UGLE aukeratzera bultzatu zidana, bere gertutasuna izan zen batez ere, herrian dago eta ez zara beste leku batera mugitu behar. Ni baino zaharragoak diren ikasleen iritziak ere erakarri ninduen; irakasleei buruz hitz egin ziguten, beti gure gainean eta beti laguntzeko prest zeudela. UGLEk nire aurreikuspen guztiak bete ditu.



IVÁN ÁVILA LLORENTE

Batxilergo Teknologikoa
16 urte

Nik argi izan dut zer egin nahi nuen zeren betidanik ibili naiz ordenagailu eta robotekin jolasten eta horrek, arlo horretako zerbait ikasteko motibatzen ninduen. Gero, La Salle eskolarekin eskola ezberdinak ikusi genituen eta argi ikusi nuen UGLEa joango nintzela. Nire etxe ondoan neukan, nire Batxilergoa egiteko baliabide oso onak zituen eta gainera, gustuko nuen beste gauza bat: praktika asko egiten direla; hau da, ez dela dena ikasi eta ikasi. Urte bat pasa ondoren konturatu naiz nire aukera ona izan dela.



→ urola garaiko lanbide eskola

*Beloki hiribidea z/g
ZUMARRAGA*

943 725 477

www.ugleskola.org

HEZKUNTZA ARAUTUAN:

- BATXILERGOA
- ERDI MAILAKO ZIKLOAK
- GOI MAILAKO ZIKLOAK
- OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA

ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZAN:

- HOBETUZeko IKASTAROAK
- LANBIDEko IKASATAROAK



INFORLINE

Todo lo que necesitas
en un Chrombook



CTL J2

Cortex-A17 RK3288 de cuatro nucleos.
11.6" 1366x768 HD LED
Memoria 2 Gb DDR3L
16 Gb eMMC HDMI 2.0 - 2
x USB - 1 x Micro SD - Wifi
2x2 802.11/b/g/n/ac and
5.0G ,Bluetooth 4.0

199€



CTL J4 Plus

Cortex-A17 RK3288 de cuatro nucleos.
11.6" 1366x768 HD **IPS**
Memoria **4 Gb** DDR3L
16 Gb eMMC HDMI 2.0 -
2 x USB - 1 x Micro SD -
Wifi 2x2 02.11/b/g/n/ac
and 5.0G ,Bluetooth 4.0

225€



CTL J5

Intel N3060 (2.48Ghz /
2M Cache) Braswell
11.6" HD IPS 1366x768
Táctil Memoria **4 Gb**
LPDDR3 **32 Gb**eMMC
3xUSB 3.0 1x HDMI1x
Micro SD HD Web Wifi
2x2 802.11ac Bluetooth
4.0

299€

Tienda Online: tienda.inforline.net Labeaga 58 Urretxu ☎ 943724121